

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE**CULTURA Y TURISMO**OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Turismo Departamentuak sektoreko jarduerak eta produktu berrietan inbertsioak sustatzeko bi deialdi onetsi ditu, 847.000 euroren truke

Nafarroako Gobernuak partzuergoen, toki entitateen eta elkarteen turismo-jarduerak suspertu nahi ditu

Miércoles, 11 de mayo de 2011

Nafarroako Gobernuak, Kultura eta Turismo Departamentuaren bidez, turismo-partzuergoei, toki entitateei eta elkarteei bideratutako bi laguntza-deialdi onetsi ditu, 847.000 euroren truke, sektoreari dagozkion jarduerak egiteko eta produktu berrien garapenean inbertsioak egiteko.

Lehenengo

[deialdia](#), 772.000 eurokoa, 2010eko urriaren 1etik 2011ko irailaren 30era egindako jarduerak garatzera bideratuta dago. Aurrekontu osotik, 272.000 euro turismo-garapenerako eta -sustapenerako elkarteetara bideratuko dira; 159.000 euro turismo-kudeaketarako partzuergoetara, eta 341.000 euro turismo-garapenerako eta -sustapenerako toki erakundeetara eta partzuergoetara. Deialdiaren epea maiatzaren 7an ireki da.

Zehatz esanda, turismo-garapenerako eta -sustapenerako laguntzen barruan, jarduera hauek sartzen dira: kalitate arloko jardunak, trebakuntza-jarduerak, produktuaren arloko jardunak, turismo-intereseko ospakizun turistiko-kulturalak antolatzea, turismo- eta festa-ospakizunak, bisita antzeztuak eta/edo tematizatuak eta bisita gidatuak.

Laguntzak funts galduko diru-laguntza moduan antolatuko dira %15 eta %80 bitartean, sutatzailearen eta aurkeztutako proiektuaren arabera.

Turismo-partzuergoen kudeaketa kontratatzeke diru-laguntzei dagokienez, barruan hartzen duten biztanleriaren eta jardueren aurrekontuaren arabera izango dira, eta 45.700 eta 13.000 euro bitartekoak izango dira.

Laguntzak partzuergoetarako, turismo-produktuetan inbertsioak egiteko

Era berean, turismo-partzuergoei bideratutako laguntzen bigarren [deialdia](#) irekita dago, turismo-produktuak garatzeko 2011ko urtarrilaren 1etik urriaren 30era egindako inbertsioei dagokienez. Eskaerak aurkezteko epea maiatzaren 27an

amaituko da. Aurrekontua 75.000 eurokoa da. Deialdian inbertsioetarako 30.000 eta 40.000 euro bitarteko laguntzak ezarri dira, eta diru-laguntzaren zenbatekoa onartutako aurrekontuaren %40 izango da.

Deialdian, lehenengo eta behin, turismo-seinaleztapenean egindako inbertsio-proiektuak baloratuko dira, Turismo Zuzendaritza Nagusiaren Seinaleztapen Planari egokituta. Kasu honetan, diru-laguntza emateko baremo hau ezarri da: erdietsi nahi diren helburuak, proiektura bildutako herrien eta herritarren kopurua, turismo-produktuak eta -baliabideak, eta seinaleztapena eta aurrekontua.

Aurrekonturik geratuko balitz, turismo-produktuak garatzeko proiektuak gauzatzea baloratuko da. Kasu honetan, inguruan turismoa erakartzeko eta dinamizatzeko gaitasuna, proiektuaren kalitatea eta berrikuntza maila eta jasangarritasuna baloratuko dira.

Deialdi honen bidez Turismo Produktuen Garapen Plana praktikan jarri nahi da, horretara biltzen baitira Nafarroako turismo lehiakor, jasangarri eta berritzailea garatzeko jardun, ahalegin eta estrategia guztiak. Planak lau helburu ditu: turismo-eskaintza lehiakorra, antolatua eta garapen turistikoan inplikaturako agenteen artean adostua lortzea; turismoaren arloko koordinazio integralaren sistema definitzea; inbertsioen eraginkortasuna eta efizientzia indartzea, eta Nafarroako lurraldea modu orekatuan egituratzea, turismo-garapenerako unitate koherenteak eta berezko nortasuna dutenak eratuz.